

**Gordailuen estaldurari buruzko oinarrizko informazioa**

Laboral Kutxan dauden gordailuak honako honek bermatzen ditu:	Kreditu-Entitateen Gordailuak Bermatzeko-Fondoa (1)
Estalduraren muga:	100.000 euro gordailugile bakoitzeko eta kreditu entitate bakoitzeko (2)
Kreditu-erakunde berean gordailu gehiago badituzu:	Kreditu-erakunde berean dituzun gordailu guztiak batu egiten dira, eta guztizkoa 100.000 euroen mugaren pean dago. (2)
Konturen bat beste persona batekin batera badaukazu:	100.000 euroko muga gordailugile bakoitzari aplikatzen zaio (3)
Errenboltsoarako aldia, kreditu-erakundea lehiaketan egonez gero:	7 egun baliodun. (4)
Errenboltsoa egiteko moneta:	Euroa / Euros
Harremanetarako:	C/ José Ortega y Gasset, 22 - 5ª planta, 28006 Madrid Teléfono: +34 91 431 66 45 - Fax: +34 91 575 57 28 Correo Electrónico: fogade@fgd.es
Informazio gehiagorako:	<a href="http://www.fgd.es">http://www.fgd.es</a>

**Informazio gehigarria**
**(1) Zure gordailuaren estalduraren ardura duen sistema.**

Zure kreditu-erakundea ofizialki onartutako erakunde arteko babes-sistema baten barruan dago. Sistema hori Gordailuak Bermatzeko Sistema da. Horrek esan nahi du sistema horretako kide diren erakunde guztiek elkar babesten dutela, kaudimengabezia gerta ez dadin. Zure kreditu-erakundea kaudimengabezia izango balitz, gordailuko dirua itzuliko zaizu, 100.000 euroko mugarekin.

**(2) Babesaren muga orokorra.**

Kreditu-erakunde batek ezin baditu bere finantza-betebeharrak bete, eta horren ondorioz, gordailuetako dirua berreskuratzetik ez balego, Gordailuak Bermatzeko Sistemak dirua itzuliko lieke gordailugileei. Gehienez ere, 100.000 euro itzuliko zaizkie kreditu-erakunde bakoitzeko. Horrek esan nahi du kreditu-erakunde berean egindako gordailu guztiak batzen direla, estaldura-maila zehazteko. Adibidez, gordailugile batek 90.000 euro baditu aurrezki-kontu batean, eta 20.000 euro kontu korrante batean, 100.000 euro baino ez zaizkio itzuliko.

**(3) Partaidetzazko kontuen babesaren muga.**

Partaidetzazko kontuen kasuan, 100.000 euroko muga gordailugile bakoitzari aplikatuko zaio.

Hala ere, kontu batean eskubideak dituzten pertsonak nortasun juridikorik gabeko sozietate bateko, elkarte bateko edo antzeko elkarte bateko bazkideak edo kideak badira, kontu horretan egindako gordailuak batu egingo dira, gordailugile batek egin izan balitu bezala, 100.000 euroko muga kalkulatzeko.

**(4) Errenboltsoa.**

Gordailuak bermatzeko sistema Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Fondoa da (José Ortega y Gasset kalea, 22, 5. Solailua, 28006 Madril; telefonoa: +34 91 431 66 45; Faxe: +34 91 575 57 28; posta elektronikoa: [fogade@fgd.es](mailto:fogade@fgd.es); webgunea: [www.fgd.es](http://www.fgd.es)). Gordailuen errenboltsoa (gehienez, 100.000 euro) epe hauetan egingo du: 20 egun baliodunetan, 2018ko abenduaren 31 arte; 15 egun baliodunetan, 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean; 10 egun baliodunetan, 2021ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31 bitartean; 2023ko abenduaren 31tik aurrera, 7 egun baliodunetan.

2023ko abenduaren 31ra arte, Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Fondoak ezin badu zazpi egun balioduneko epean itzuli eman beharreko zenbatekoa, gordailugileei beren gordailu bermatuen zenbateko egokia ordainduko die, bere mantenua estaltzeko. Zenbateko hori bost egun balioduneko epean ordainduko die, eskaera egin ondoren. Zenbateko hori itzuli beharreko zenbatekotik kenduko da.

Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Fondoak aurreko paragrafoan aipatutako zenbatekoa ordaintzeko, Fondoaren beraren datuetan edo kreditu-erakundeak emandako datuetan baino ez da oinarrituko.

Epe horretan gordailuko dirua itzuli ez badizute, Gordailuak Bermatzeko Sistemarekin jarri behar duzu harremanetan; izan ere, errenboltsoa eskatzeko epea mugatuta egon daiteke. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [www.fgd.es](http://www.fgd.es) webgunea.

### **Beste informazio garrantzitsu bat.**

Eskuarki, gordailuak bermatzeko sistemek gordailugile xehekariak eta enpresak estaltzen dituzte. Zenbait gordailutan aplika daitezkeen salbuespenak dagokion gordailuak bermatzeko sistemaren webgunean kontsulta daitezke. Horrez gain, zure kreditu-erakundeak esango dizu, galdetuz gero, produktu jakin batzuk estalita dauden ala ez. Gordailuak estalita badaude, kreditu-erakundeak kontu-laburpenetan ere berretsiko dizu.

Laboral Kutxarekin zorrik baduzu, kontuan izango da gordailuak Bermatzeko Fondoak bermatzen duen eta itzul daitezkeen zenbatekoa kalkulatzekoan.

### **Ohartarazpena.**

Zenbait gordailu ez dira onargarritzat hartuko, eta beraz, Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Fondoaren estalduratik kanpo egongo dira. Honako hauek dira:

- a) Beste kreditu-erakunde batzuek beren kontura eta beren izenean egindako gordailuak, eta subjektu eta finantza-erakunde hauek egindakoak:
  1. Balore-sozietateak eta agentziak.
  2. Aseguru-erakundeak.
  3. Balore higigarrietako sozietatak.
  4. Inbertsio kolektiboko erakundeak gestionatzen dituzten sozietateak, eta pentsio-fondoak, titulizazio-fondoak eta arrisku-kapitaleko fondoak gestionatzen dituzten sozietateak, eta gestionatzen dituzten erakundeen gordailuak.
  5. Zorroak gestionatzen dituzten sozietateak eta finantza-aholkularitzako enpresak.
  6. Arrisku-kapitaleko sozietateak eta haien sozietate gestoreak.
  7. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Erregelamenduaren 4.1.26. artikuluan zehaztutako beste edozein finantza-erakunde.
- b) Kreditu-erakunde batek jaulkitako zorra adierazten duten baloreak, baita zor-agiriak eta efektu negoziagarriak ere.
- c) Identifikatu gabeko titularren egindako gordailuak, apirilaren 28ko 10/2010 legean, capital-zuriketari aurrea hartzekoan eta terrorismoaren finantzaketa kontrolatzekoan, ezarritakoari jarraituz, eta capital-zuriketaren delituagatik zigor-epaia jaso duten eragiketen gordailuak.
- d) Herri Administrazioek egindako gordailuak, 500.000 euroko edo gutxiagoko urteko aurrekontua duten tokiko erakundeen egindakoak izan ezik.